



- Azala
- Txikipedia**
- Txokoa
- Albisteak
- Aldaketa berriak
- Ausazko orria
- Laguntza
- Dohaintza egin
- Beste proiektuetan
- Tresnak
- Honanzko esteka duten orriak
- Lotutako orrietako aldaketak
- Fitxategia igo
- Orri bereziak
- Lotura iraunkorra
- Orri honen datuak
- Artikulu hau aipatu
- Hizkuntzen arteko loturak gehitu

Artikulua

Txikipedia

Irakurri

Aldatu

Aldatu iturburu kodea

Ikusi historia

Txikipedia:Berbere


Berbereak edo **amazigak** [Afrika](#) iparraldeko etnia bat dira. 62 milioi pertsona dira, eta berezko hizkuntza [amazigera](#) dute. Berbereak historiaurretik daude Ipar Afrikan.



Amazig bandera

Kategoriak: [Txikipedia](#) | [Txikipedia:Afrika](#)

Berbereen banaketa [aldatu | aldatu iturburu kodea]



Berbereen hedapena Afrika iparraldean.

- Tuaregak
- Braberrak (Atlaseko berberek)
- Riftarrak
- Chenoui
- Kabiliarrak
- Chaouia
- Xluh
- Saharako berberek

Berberek ondoko estatuetan banaturik daude:

- Maroko: 25.980.000tik gora
- Aljeria: 19.800.000tik gora
- Tunisia: 130.000
- Libia: 380.000
- Mauritania: 10.000
- Egipto: 40.000

Migrazio mugimenduen ondoriozko taldeak:

- Frantzia: 2.700.000tik gora
- Espainia: 970.000
- Herbehereak: 620.000
- Belgika: 450.000
- Israel: 500.000



Basamortua oso lurralde lehorra da. [Euri](#) gutxi egiten duenez, [landareak](#) eta [animaliak](#) urriak dira; intsektuak, sugeak eta beste narrasti batzuk besterik ez dira bizi horietan. [Gameluak](#) ez dira bizi basamortuetan, baina oso ondo egokituta daude basamortuetako gogortasuna denbora luzez jasateko, baita edan gabe ere; horregatik gizakiak aspalditik erabili izan ditu basamortuak zeharkatzeko.



Munduko basamortu beroak.

Basamortuetan, ezinezkoak izaten dira, beraz, nekazaritza edo abelazkuntza, eta, ondorioz, haietan ia ez da gizakirik bizi. Dena dela, teknologiaren laguntzaz, gaur egun badira basamortuan dauden eremu batzuk gizakiak bertan bizitzeko prestatu direnak; baina oraindik oso gutxi dira.

Basamortu motak [aldatu | aldatu iturburu kodea]


Basamortu hitza ia beti lurralde-eremu lehor eta beroekin erabiltzen dugu, hareazko desertuekin. Horien artekoa da, adibidez, [Saharako basamortua](#). Baina badira harrizkoak edo har-legarrezkoak (harri txikiak) diren basamortuak ere; edota gatzezkakoak. Gatzezko basamorturik handiena [Hego Amerikan](#) dago, [Bolivian](#): [Uyuniko gatzaga](#) da.

Baina badira basamortu hotzak ere; haietako handiena [Antartika](#) da; basamortu polar hau izotzez erabat estalita dagoen [kontinente](#) bat da, landaretzarik gabekoa, eta oso animalia gutxi aurkitu daitezke bertan. Izotza egon badago, baina oso euri gutxi egiten du bertan, 2 mm baino gutxiago urtean; beraz, munduko tokirik lehorrenetako bat da, [prezipitazioei](#) begiratzen badiegu.


Basamortu hotzak baina izotzik gabekoak ere badaude; Hego Amerikan, [Txilen](#) zehazki, [Atacamako basamortua](#) dago. Bigarren basamorturik lehorrena da, Antartikaren ondoren; baina, kasu honetan, altuera handian dagoelako da. Izan ere, basamortu hau 5.000 metroko altueran dago, eta horregatik ez du egiten euririk.

Munduko basamorturik handienak [aldatu | aldatu iturburu kodea]

Beheko hauek dira munduan dauden basamorturik handienak, haien azalerarekin:



[Antartika](#): 14 milioi km²




[Sahara](#): 9,4 milioi km²




Australiako basamortua: 3,8 milioi km²



[Arabiako basamortua](#): 2,3 milioi km²



[Gobi basamortua](#): 1,3 milioi km²



[Kalahari](#): 0,9 milioi km²



Azala

Txikipedia

Txokoa

Albisteak

Aldaleta berriak

Ausazko orria

Laguntza

Dohaintza egin

Beste proiektuetan

Tresnak

Honanzko esteka duten orriak

Lotutako orrietako aldaketak

Fixategia igo

Orri bereziak

Lotura iraunkorra

Orri honen datuak

Artikulu hau aipatu

↗ Hizkuntzen arteko loturak gehitu

Inprimatu/esportatu

Liburu bat sortu

PDF gisa jaitsi

Inprimatzeko bertsioa

Artikuluak

Txikipedia

Irakurri **Aldatu**

Aldatu iturburu kodea

Ikusi historia

Nomada

Nomadak bizileku finkoa ez daukaten eta leku batetik bestera mugitzen diren pertsonak edo pertsona-taldeak dira.

Gizakiak denbora luzean izan dira nomada hishorian zehar, eta oraindik ere badira nomadak diren gizatalde batzuk; herri nomada ezagunenak tuareg, beduino, pigmeo eta ijitoak dira.

Historiaurrean, gizakiak nomadak ziren, leku batetik bestera ibili behar izaten zutelako behar zituzten baliabideak eskuratzeko; beraientzako eta aberentzako janaria, jantziak, tresnak, etab. Leku batean topatzen zituzten baliabideak bukatzen zirenean, beste leku batera joan behar izaten zuten, bizi ahal izateko.

Nomadismoa deitzen zaio bizimodu horri. Horregatik, gizakiek aterpe naturalak erabiltzen zituzten bizileku gisa; haitzuloak, adibidez. *Nekazaritza* asmatu eta zabaldu zenean, aldiz, gizakiak baliabideak eskuratzeko modu finkoagoa lortu zuen, eta, horrela, ez zuen gehiago leku batetik bestera mugitzen ibili beharrik izan. Hala, bizileku finkoetan bizitzten hasi zen; bizimodu horri *sedentarismoa* deitzen zaio.

Gaur egun, 30-40 milioi nomada inguru daude munduan, baina gero eta gutxiago dira.



Nomadak kanpaleku bat.